

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2018ko OTSAILAREN 15ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2018ko otsailaren 15ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2018ko urtarrilaren 11an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 11 de enero de 2018.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2018 Ekitaldirako Udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespena ematea, hala bada./ Aprobación inicial del expediente del presupuesto general del Ayuntamiento para el ejercicio 2018.**
- 4. Larraulgo Herri Ostata zerbitzu kudeaketarako kontratua esleitzeko lehiaketa publikoaren epea luzatzea, hala bada/ Ampliación del Plazo para la adjudicación de la gestión del servicio público del Herri Ostata de Larraul.**
- 5. Larraul, Ernio Larraul, mendi lasterketa antolatzeko, 2017 urteko diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada/ Aprobación de la liquidación de la ayuda económica de 2017 para la organización de la carrera de montaña Larraul, Ernio, Larraul.**
- 6. Larraul, Ernio Larraul, mendi lasterketa antolatzeko 2018 urterako diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada/ Solicitud de ayuda económica para la organización de la carrera de montaña Larraul, Ernio, Larraul del ejercicio 2018.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. N.E.J. andreak eginiko eskaera aztertu, hala bada/Estudio de la solicitud realizada por N.E.J.
8. A.M.C. jaunak eginiko eskaera aztertu, hala bada/Estudio de la solicitud realizada por A.M.C.
9. Larraulgo etxebizitza erabilerarako hiri lurreko ataripe eraikuntza arautzen duen ordenantzaren hasierako onspena, hala bada/Aprobación de la ordenanza reguladora para la construcción de porches en suelo urbano residencial de Larraul.
10. 2018ko otsailaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako diru-laguntza programaren babesean Laguntza ekonomikoa eskatzea,” oroimen historikoa berreskuratzea xede duten Proiektua gauzatzeko”/Solicitud de ayuda económica al amparo de la subvención publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de fecha 2 de febrero de 2018, para la realización de proyectos de recuperación de la memoria histórica”
11. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
12. Beste batzuk/Otros.
13. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
 - 13.1. Tolosaldea bus-eko langileei babesa, hala bada/ Apoyo a los trabajadores de Tolosaldea bus.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2018 urteko urtarrilaren 11ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA


ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

02/20187 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 23koa, 2017/02 Kreditu aldaketaren espedienteari behin betiko onspena ematea, ebazten duena.

03/2018 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 30ekoa, 2017ko 4. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

04/2018 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 2koa, Hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2018EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2018 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2018ko urtarrilaren 30ean egindako txostenean dioena.

Gaia bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:


- Aldeko botoak: Urbietta, Pizarro, Jauregi, Leon, Sarria eta Serrano Alkate/zinegotziak.
- Kontrako botoak: Ez daude.
- Abstentzioak: Asensio zinegotzia.

Bozketaren emaitza ikusirik, bertaratuak gehiengoz, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENEA.- Larraulgo Udaleko 2018 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behineko onartzea 379.554,74 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

SARRERAK	379.554,74€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	47.700,00




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2. Kap. Zeharkako Zergak	1.500,00
3. Kap. Tasak eta bestelako zergak	39.360,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	233.859,00
5. Kap. Ondare Sarrerak	3.600,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak besterengan.	0,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	53.535,74
8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza Pasiboak	0,00

GASTUAK	379.554,74€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Pertsonal gastuak	132.272,58
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	132.959,16
3. Kap. Finantza gastuak	50,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	55.545,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak	46.500,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	8.200,00
8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	4.028,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- 2018ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtsio eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

LAUGARRENA.- Idazkari-kontuhartzaileak 2018ko urtarrilaren 30ean egindako egonkortasun txostenean adierazitakoa onestea, non azaltzen den:

Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan Ogasun eta Finantza Departamenduak argitaratutako jarraibideak (2017ko azaroaren 16an publikatua GAOan) dioena aplikatuz:

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko- finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2019-2021 epealdia aurreikusiko duena, eta jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru garren apartatuan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.


Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazteko, gastuaren araua bete izana 2018ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

4. erregela. Kontuhartzailearen txostena.

Toki entitateko kontuhartzaileak txosten bat egin beharko du aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa.

Aipatutako txosten hori aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egin beharko da. Aurrekontuaren onarpena eta aldatzeko direla-eta egindako txostenen konklusioetatik ez da derrigorrez ondorioztatuko plan ekonomiko-finantzario bat prestatzeko beharra. Baldin eta likidazioaren bidez egindako txostenaren ondorioek agerian uzten badute ez direla bete aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari lotutako helburuak edo gastuaren araua, plan ekonomiko-finantzario bat prestatu eta onartu beharko da.

Hauek horrela, komunikazioa aurkezten zaio Udalbatzarrari adieraziz:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- 2017ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak direla.
- 2018rako defizit eta zor helburuak betetzen direla.

Ikusten da Aurrekontu espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO HERRI OSTATUA ZERBITZU KUDEAKETARAKO KONTRATUA ESLEITZEKO LEHIAKETA PUBLIKOAREN EPEA LUZATZEA, HALA BADA

Ikusirik, 2018ko urtarrilaren 11an egindako Udalbatzarrean, Herri ostatuaren zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratatzeke lehiaketa arautuko zuten baldintza ekonomiko administratiboen plegua eta lizitazioari hasiera ematea erabaki zela.

Ikusirik, aipaturiko lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela, interesatuek euren proposamenak aurkezteko epea otsailaren 9arte finkatu zelarik.

Ikusirik aipaturiko epean ez zela proposamenik egon.

Ikusirik, Herri Ostatu itxita dagoela eta Larraulgo Udalak zerbitzu hau eskaintzen jarraitu nahi duela, aipaturiko lizitazioaren epea hilabetez luzatzea proposatzen duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:


BAKARRA: Herri Ostaturen zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratatzeke lizitazioa hilabetez luzatzea, hau da, 2018ko martxoaren 9arte.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAUL, ERNIO, LARRAUL, MENDI LASTERKETA ANTOLATZEKO, 2017 URTEKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, 2017ko otsailaren 9an eginiko Udalbatzarrean, Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2017 urteko aurrekontuetan aurreikusita zegoenez, 600 euroko diru-laguntza ematea erabaki zuela Larraulgo Udalak.

Kontutan hartuta diru-laguntza eman ondoren baldintza bat jarri zela, hau da, 2017eko kontuen kitapena, memoria bat eta gastuen frogagiriak aurkeztu beharko zituela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, A.A.J. jaunak, Club deportivo Utsetaren izenean, Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren 2017ko diru-laguntza zuritzeko eskatutako dokumentuak aurkeztu dituela Larraulgo Udaletxean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: 2017 urteko Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa antolatzeke emandako diru-laguntza zuritzeko aurkezturiko kitapena onestea.

SEIGARREN PUNTUA

LARRAUL, ERNIO, LARRAUL, MENDI LASTERKETA ANTOLATZEKO 2018 URTERAKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik A.A.J. jaunak, Club deportivo Utsetaren izenean, 2018 ko martxoaren 18an egingo den Larraul, Ernio, Larraul mendi lasterketarako hainbat eskaera egiten dituela, ondorengoak direlarik:

- Diru-laguntza eskaera
- Larraulgo Udalaren laguntza, Asteasuko Udaletik materialen eskaera egiteko.
- DYA zerbitzua egun horretan lasterketan egoteko beharrezkoak diren izapideak egiten laguntzeko eskaera.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2018 urteko aurrekontuetan aurreikusita dagoenez 422.340.00.01 partidari, 600 euroko diru-laguntza ematea. 2018 urtean emandako diru-laguntzaren zuritzea onesteko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituelarik Larraulgo Udaletxean:

- Gastu eta sarreraren erlazioa.**
- Gastuen frogagiriak, hau da, fakturak**
- Memoria bat**

BIGARRENGOA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan, DYA egun horretan lasterketan egoteko dagokion izapideak egitea eta Asteasuko udalari lasterketan erabiliko den materialaren eskaera egitea, onesten da.

HIRUGARRENGOA: Erabaki hauen berri interesdunari ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZAZPIGARREN PUNTUA

N.E.J. ANDREAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik N.E.J. andreak eginiko eskaera, non dioen herri ostatua utzi egin behar duela ekonomikoki ez delako bideragarria, beraz kontratuaren hautsiera bezala ez hartzeko baizik eta kontratuaren uzte bat, hau kontutan izanik jarritako fidantza bere osotasunean bueltatzea eskatzen du.

Ikusirik, badagoela aurrekari bat, non fidantza bueltatzeko beste eskaera baten aurrean, ondorengo formula erabili zen:

- Kontutan izanda kontratua 5 urteetarako egiten dela, hau da, 60 hilabete, fidantza (3.000 euro) hilabete kopuruaz zatitzen da. Eraitza 50€hilean delarik.
- Kontutan hartzen da, herri ostatuko zerbitzua zenbat hilabeteetan eman duen. Kasu honetan 26 hilabete.
- Azkenik 26 hilabete biderkatzen dira hilean 50€gatik. Eraitza 1.300 euro bueltatzeko proposamena egiten delarik.

Ikusirik, N.E.J. andreak otsailaren 11an zerbitzua emateari utziko duela, otsaileko hilabetea ez kobratzeko proposamena egiten da.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, Cristian Pizarro zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: N.E.J. andreak herri ostatuaren zerbitzua kudeatzeko jarritako 3.000 euroko fidantzagatik, 1300 euro bueltatzea.

BIGARRENA: N.E.J. andreari, herri ostatuko otsaileko alokairua ez kobratzea, otsailaren 11an amaitu behar duenez bere zerbitzua.

HIGUGARRENA: Erabaki hauen berri N.E.J. andreari ematea.


ZORTZIGARREN PUNTUA

A.M.C. JAUNAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik A.M.C. jaunak, Kilometroak kultur Elkartearen izenean eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

“Nik, A.A.C y, Kilometroak kultur elkarteko ordezkari bezala eta kilometroak 2018ko irteeretako arduradun bezala hauxe adierazten du:

Kilometroak 18, Urretxu-Zumarraga ikastolak antolatuko du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beraz, eta jakingo duzuen bezala, jai honen bitartez hainbat ekintza antolatuko diren, eta hauetako bat arropen salmenta izaten da.

Idatzi honen bitartez 2018ko martxoan ospatuko duzuen Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan, Kilometrotako arropa salmenta postua jartzeko eskaera bideratu nahi dizuegu.

Gure eskakizun honen erantzuna baikorra izango delakoan, alde zuretik eskerrak emanez, jaso ezazue gure agurrik beroena.”

Ikusirik batzarkideen artean ez dagoela adostasuna, gaia bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

- Aldeko botoak: Urbietta, Pizarro, Serrano, Jauregi eta Asensio Alkate/zinegotziak.
- Kontrako botoak: Leon eta Sarria zinegotziak.
- Abstentzioak: Ez daude.

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.A.C. jaunak, Kilometroak Kultur Elkartearen izenean eginiko eskaera onestea, hau da, 2018ko martxoaren 18an egingo den Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan, Kilometrotako arropa salmenta postua jartzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, A.A.C. jaunari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA


LARRAULGO ETXEBIZITZA ERABILERRAKO HIRI LURREKO ATARIPE ERAIKUNTZA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo herrian beharra sortu dela Etxebizitza erabilerrako hiri lurreko ataripe eraikuntza arautzen duen ordenantza bat izateko.

Ikusirik aipaturiko ordenantzaren zirriborro bat prestatu dela, ondorengo diolarik:

LARRAULGO ETXEBIZITZA ERABILERRAKO HIRI LURREKO ATARIPEAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Honako Ordenantza honen xedea, hirigintza ikuspuntu batetik kontsolidatuak dauden eraikinetan, fatxaden alboetan ataripeak eraikitzeke jarduketak erregulatzea da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Etxebizitza hauen erabilera beharren aurreikuspen faltak, klimatologia gogorra, hezetasun arazoek eta bertako bizilagunen ekonomia hobekuntzek, bertako bizilagunek, tokiko administrazioari, gero eta ataripe gehiago eskatzea eragiten dute, bizilekuei babestutako kanpoko guneak egokituz.

Gainera, jada eraikitako ataripeen edo babesen izaera puntual eta bereiziak eta hauek sortu diren maiztasunak, hondatze garrantzitsu bat eragiten dute hiri-paisaiaren kalitatean, ataripeen osaketa balioak inongo irizpiderik gabe ezereztean.

Hortaz, mota honetako jokabideen aurrean irizpide argi bat hartzeko beharra ezartzen da; horrela, ataripeen ezarpenen bidez etxebizitzek jasan dezaketen hobekuntza kontuan hartuta, fatxaden konposizio baloreen narriadura ez litzateke gertatuko eta eraikinaren tratamendu homogeneoa lortuko litzateke.

Honen guztiaren ondorio gisa, eraikinetako fatxadak osatzen dituzten ataripe motako elementu guztiei dagokion ondorengo Udal Ordenantza hau sortzen da.

Honako ordenantza hau, indarrean dagoen legedi urbanistikoko gai honi dagokion ezarritako irizpideei egokitzen zaio, eta aldaketa hau interes orokor batean oinarritzen dela ulertuaz, landa giroa nagusi den Larraul bezalako inguru bateko bizitegi-eraikinen erabilerearen baldintzen hobekuntzen beharren jarrera justifikatuz, ezinbestekoa da Arau Subsidiarioetan etxebizitzaren erabilera eta gozamen egokiaren inguruan orain arte ez zeuden irtenbideak topatzea.

LARRAULGO herrian legezatu edo eraiki edo nahi diren ataripeek, nahiz eta partzelaren eraikigarritasuna agortua egon, ondorengo baldintza guztiak bete beharko dituzte.

1.art. Xedea

1.- Ordenantza honen xedea, Larraulgo portxeak arautzea da.

2.- Aurreko puntuan seinalatutako efektuentzat soilik, portxea edo ataripea, eraikin baten fatxadaren ondoan kokatu daitekeen perimetralki irekia den espazio gardena izango da, eta, euskarriekin edo euskarririk gabe mantendu daitekeen egiturazko estalkiaren funtzioa, kanpo egonaldiko edo zirkulazio zonei babesa ematea izango da.


2. art Aplikazio eremua

Hiri-Lurreko bizitegi-erabilera duten eraikuntzetan ataripeak baimenduko dira, araudi urbanistikoak bere balio estetiko, historiko edo kultural baloreengatik babestutako eraikinetan salbu.

3. art. Ataripeen baldintza estetikoak

Ataripeen estalkiak, bat, bi edo hiru uretara inklinatuak izango dira, eraikin nagusiko bolumetria eta konposizioarekin estetikoki harmonizatzeko moduan.

Lizentzia arrazoi estetikoengatik ukatu ahal izango da, azken emaitza, ageriko eran, kokapeneko zeharo desegokia denean.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Eraikuntza berriko esku-hartzeek, lursail berean kokatutako eraikuntzen ingurunearen egokitzea ekarriko dute, kanpo itxura hobetzarren, txabola, eranskin eta tejabana prekarioak desagertzen direlarik.

4. art. Ezaugarri teknikoak eta eraikuntzakoak

Eraikigarriak ez diren lursail pribatuetan edozein tipologia eraikigarrietako terraza edo behe solairuko ataripeak eraiki ahal izanen dira, betiere, ondorengo baldintzak betetzen badira:

- Eraikin nagusira erantsiak eraikiko dira eta hauen neurri maximoak hauek izango dira:

- *Gailurreraino altuera: 3,50m.*
- *Teilatu-hegal horizontalarekiko altuera: 2,50m.*
- *Luzera: erantsita dagoen fatxadarena.*
- *Zabalera: 4,00m. (estalkiaren oinaren proiektzioa).*
- *Estalduraren aldapa: 35%.*
- *Azalera: 15m² etxebizitza bakoitzeko (estalkiaren proiektzio horizontalaren oina neurtuaz)*
- *Teilatu-hegalaren gehienezko hegala 1,00m*

- Eraikuntzarako erabili daitezkeen materialak honako hauek izango dira:


- *Egitura: egurrezkoa, fatxada eraikitzeke erabili diren antzeko materialekin apaindua, edo lakatutako edo kolore egokietan margotutako metalikoa.*
- *Estaldura: bere kolore naturaleko zeramikako teilekin bukatuko da, zeramikaren antzeko kolore eta ehundura dituen hormigoizko teilak edo beira. Erabat debekatuko dira hainbat materialen erabilera; hala nola, fibrozementuzko, asfaltozko eta arbelezko xaflak, txapa metalikoak eta abar.*

*- Ataripeak irekiak izan behar dira; **ezingo dira itxi** inolako sistema edo materialen bitartez.*

- Lursail pribatuetako lorategi espazioek lorezaintza tratamendu bat jaso beharko dute gutxienez gainazalaren 50%an.

- Ataripearen hegalaren edozein punturen eta alboko partzela, eraikin edo terrazaren arteko distantzia 2,00m-koa izango da.

Bi familiako etxebizitza edo adosatua konplimentu honetatik salbuesten dira, baldin eta kaltetutako bizilagunak ados badaude. Kasu honetan, jabeek, fatxadaren multzoaren konponbide bat garatuko duen proiektu unitarioa bat burutu beharko dute, eta betiere, kaltetutako jabe guztien etorkizuneko betetzea den konpromiso idatzi bat egongo da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

5. art. Lizentziak

Ataripearen eraikitzearen aurretik, obraren udal lizentzia eskatu beharko da eta eskabideari ondorengo dokumentazioa atxikituko zaio:

- Ataripearen kokapenaren krokisa (lursailean edo terrazan).
- Eraiki nahi den ataripearen krokisa, dimentsioen argibideekin batera.
- Xehatutako aurrekontua.
- Bizilagunen komunitatearen baimena (aldamenekoari itsatsitako konponbidea duen kasuan).

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo etxebizitza erabilerarako hiri lurreko ataripe eraikuntza erregulatzen duen araudiari hasierako onarpena ematea.

BIGARRENA: Erabaki hori eta dagokion espedientea jendaurrean erakusgai jartzea, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Larraulgo Udaleko iragarki taulan iragarkiak argitara emanez, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren) 49. artikulua xedatutakoa betetzeko.

Erabakia eta espediente honako hauen arabera jarri dira jendaurrean:


- a) *Espediente erakusgai dagoen lekua:* Udaleko Idazkaritzan.
- b) *Agiriak aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea:* 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita, bulego-ordutegian.
- c) *Erreklamazioak aurkezteko lekua:* Larraulgo Udaleko erregistro orokorra.
- d) *Erreklamazioaren organo hartzailea:* Larraulgo Udaleko Udalbatza.

Erabakia eta espediente jendaurrean erakusgai jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, hartutako erabakia behin betiko bilakatuko da, beste erabakirik gabe, eta 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, ordenantzaren testu osoa argitaratuko da.

HAMARGARREN PUNTUA

2018KO OTSAILAREN 12KO GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN ARGITARATUTAKO DIRU-LAGUNTZA PROGRAMAREN BABESEAN LAGUNTZA EKONOMIKOA ESKATZEA, OROIMEN HISTORIKOA BERRESKURATZEA XEDE DUTEN PROIEKTUA GAUZATZEKO

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiak, 2018ko urtarrilaren 25eko Foru Dekretu bitartez onartu zuela Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendutako diru laguntzen 2018ko deialdia, 2018ko otsailaren 2ko



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, alegia oroimen historikoa berreskuratzea xede duten proiektuak gauzatzeko.

Kontuan izanik Aduna, Zizurkil, Larraul eta Asteasuko Udalek "Oroimen historikoa ikertzeko eta oroimen tokiak berreskuratze" deritzon egitasmoaren IV. Fasea garatzeko interesa dutela. Horretarako Aranzadi zientzia elkarteak aipaturiko proiektua prestatu du, bere aurrekontua 20.827,00 euro direlarik.

Ikusirik gorago adierazitako egitasmoak Aduna, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo udalerrietako mendi-adarretan ezarritako defentsa-sistema edo erresistentzia gunearen azterketan sakontzeko helburua duela, eta, lan horretaz gain, erakusketa ibiltari bat prestatzeari ere ekingo zaiola.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: 2018ko otsailaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2018ko diru-laguntza deialdia, oroimen historikoa berreskuratzea xede duten proiektuak gauzatzeari buruzkoa, diru laguntza programan sartzea, Zizurkil, Asteasu eta Adunako Udalekin elkar eginda.

Eskatzen den laguntza, 16.661,6 eurokoa da. Jarduera kostu osoaren % 80-a izanik.

BIGARRENGOA: Aduna, Asteasu, Larraul eta Zizurkil udal elkartearen kudeaketarako Larraulgo Udala izendatzea.

HIRUGARRENGOA: Larraulgo Udala espreski baimentzea aipaturiko diru laguntza eskatzeko.


LAUGARRENGOA: Aurkezten den egitasmoak 20.827,00 euroko aurrekontua du;

Aduna, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo Udalek gastuaren zenbateko osotik %20ko kofinantzazioa izango dute proiektua aurrera eramateko.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

MOVISTAR	53,76
MOVISTAR	18,15
UR AGENTZIA	12,48
UR AGENTZIA	33,90



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GARRA	221,43
GAZTEZULO	22,00
MOVISTAR	70,66
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	18,18
KIROLZER	56,40
BERRI LANTEGIA	18,00
EBA ERKIZIA	964,95
TOLOMENDI	155,55
HOSFRINOR	28,30
IBERDROLA	283,96
IBERDROLA	234,66
IBERDROLA	83,39
ZU ETA BIOK	785,57
ZU ETA BIOK	546,48
SETALDE	466,54
DIONISIO ORMAZABAL	3,09
BERTSOZALE ELKARTEA	155,78
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	932,04
AMONARRIZ ITURGINTZA	293,87
MANPEL	196,88
SANDRA GAVARRO	312,00
CORREOS	1,56
ALKAIN	146,92


Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,
ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.248,23** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMABIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

12.1. TOLOSALDEKO HILTEGI MANKOMUNITATEARI 2017 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2018ko urtarrilaren 31an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuela, Mankomunitateko kide diren Udalek erakundearen langilearen soldata ordaindu ahal izateko, 2018urtean 40.000,00 eurotako ekarpena egin behar zutela. Larraulgo Udalari 100,00 euro suposatzen diolarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2018 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 100,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2018ko Udal aurrekontuetako 422.431.40.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 128,00 euroko gastua onestea.

12.2. 2017 URTEKO KULTUR ASTEKO GASTUEN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik 2017ko azaroak 25etik abenduaren 2ra Larraulgo Aste Kulturala egin dela bertan hainbat gastu egon direlarik. Ondorengoak izanik:

ORDAINKETAK

Egutegia (111)	822,80
Umeen merendola (Elkartean)	13,64
Umeen merendola (Erosketak)	84,08
Ostatua	16,00
Kantu Afaria (Elkartea)	169,73
Kantu Afaria (Erosketak)	295,55
Taloak (Elkartea)	212,48
Taloak (Erosketak)	428,44

Ekintzak

-Eskoba Lehiaketarako materiala	10,15
-Mus Lehiaketa(Elkartea)	27,45
-Mus Lehiaketa (Arkumea)	75,00
-Tortila patata lehiaketa (Sariak)	13,10
- Tortila patata lehiaketa (ogiak)	12,00
-Ruper Ordorika(Afaria)	28,60

GUZTIRA


2.209,02

DIRU SARRERAK

-Udalaren ekarpena	3.000,00 euro
--------------------	---------------

GUZTIRA:

3.000,00 euro



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ORDAINKETAK: -2.209,02euro

BALANTZEA: 790,98 euro

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Cristian Pizarro Kultur zinegotziak prestatutako Kultur astearen antolaketarako Udalak eginiko ekarpenaren zurrizte dokumentuaren onespena, dokumentu honekin batera fakturak aurkezten dituelarik.

BIGARRENA: Cristian Pizarro Kultur zinegotziari jakitera ematea, sobratutako 790,98 euro Udaletxeko kontuan sartu beharko dituela.

12.3. OROIMEN HISTORIKOA IKERTZEKO ETA OROIMEN TOKIAK BERRESKURATZEKO PROIEKTUA, “GERRA ZIBILA ETA LEHEN FRANKISMOA” ADUNA-ASTEASU-LARRAUL-ZIZURKIL 2018, ONESTU ETA ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEARI HONEN EXEKUZIOA ESLEITU

Ikusirik Oroimen Historikoa ikertzeko eta oroimen tokiak berreskuratzeko Proiektua aurkeztu duela Aranzadi zientzia elkarteak, Gerra zibila eta lehen frankismoa, Aduna, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo udalek amankomunean gauzatuko den Proiektua, 2018 urtean Larraulgo herrian gauzatzeko asmoa dagoelarik.

Ikusirik, aipaturiko proiektu honen exekuziorako Aranzadi Zientzia Elkarteak aurrekontu bat aurkeztu duela, 20.827,00eurokoa.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oroimen Historikoa ikertzeko eta oroimen tokiak berreskuratzeko Proiektua onestu, “Gerra zibila eta lehen Frankismoa”, Aduna-Asteasu-Larraul-Zizurkil 2018 izenekoa.

BIGARRENA: Aranzadi Zientzia Elkarteari, Oroimen Historikoa ikertzeko eta oroimen tokiak berreskuratzeko Proiektua, “Gerra zibila eta lehen Frankismoa”, Aduna-Asteasu-Larraul-Zizurkil 2018 , proiektu honen exekuzioa esleitzea, 20.827,00 eurotako kostea duena.

HIRUGARRENA: 20.827,00 eurotako gastua onestea, 2018ko udal aurrekontuetako 643.336.00.01 partidaren kargura.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Aranzadi Zientzia Elkarteari ematea.

HAMAIRUGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

13.1. TOLOSALDEA BUS-eko LANGILEEI BABESA, HALA BADA

Ander Leon zinegotziak hitza hartzen du, Tolosaldea Bus-eko langileek gauzatzen ari diren grebaren arrazoiak azaltzeko.

Langileek adierazten dute Foru Aldundiak, eurek lana egiten duten enpresari esleitu ziola, Tolosaldeko bus zerbitzua emateko, eta pleguan eta kontratuan adostutako baldintzak langileei buruzkoak, aipaturiko enpresak ez dituela betetzen. Egoera prekario batean lan egiten ari direla eta greba honekin eskatu nahi dutena dela gutxienez, Foru Aldundiarekin egindako kontratuan zehazten diren baldintzak errespetatzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Tolosaldea Bus-eko langileei babesa ematea, ondorioz, Foru Aldundiari eskatzea autobusen eta langileen baldintzak egokiak direla bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA